



www.ornitho.eus

www.ornitho.eus Plataforma. 2015. urteko balantzea.

Juan Arizaga¹

¹Aranzadi Zientzia Elkartea, Zorroagagaina 11, 20014 Donostia

Harremanetarako: jarizaga@aranzadi.eus

Itzulpena: Beñat Diaz

Txosten hau honela aipatu:

Arizaga, J., Diaz, B. 2015. *www.ornitho.eus Plataforma. 2015. Urteko balantzea*. Argitaratu gabeko txostena.

Aranzadi Zientzia Elkartea.



ARANZADI

zientzia elkartea . society of sciences
sociedad de ciencias . société de sciences



www.ornitho.eus



www.ornitho.eus

www.ornitho.eus proiektua honen inizatiba bat da:



KOLABORATZAILEAK:



FINANTZIAZIOA:





www.ornitho.eus



AURKIBIDEA

SARRERA: WWW.ORNITHO.EUS ATARIA.....	6
KIDEAK.....	7
WWW.ORNITHO.EUS ATARIA EUROPAN.	8
BEHAKETEN EGIAZTAPENA.....	8
ERABILERA-ESTATISTIKAK.....	9
ERABILTZAILE KOPURUA.....	11
EKARPEN KOPURUA: ESTATISTIKA OROKORRAK.....	12
EKARPENEN BANAKETA DENBORAREN ARABERA.....	14
BEHAKETEN BANAKETA TAXONOMIAREN ARABERA.....	15
BEHAKETEN BANAKETA GEOGRAFIKOA.....	18
HEGAZTI HABIA-EGILEEN ATLASA.....	20
HEDAPENA.....	21
ESKER ONAK.....	22

OHAR GARRANTZITSUA: *www.ornitho.eus* plataforma etengabe eguneratzen denez, edozein erabiltzailek edozein unetan iraganeko behaketak gehitu ditzazke. Honela, txosten honetan agertzen diren estatistikak, ekarpenen zenbatekoari, denboraren, taxonimiaren eta geografiaren araberako ekarpenen banaketari eta hegazti negutarrei buruzkoak, 2016. urteko urtarrilaren 12an, arratsaldeko 17:00etan, egin zen kontsulta batean oinarritzen dira. Txosten honetan ageri diren estatistiken edozein aldaketa, gerora gehitutako behaketen ondoriozkoa izango da.




SARRERA: WWW.ORNITHO.EUS ATARIA.

Euskal Autonomia Erkidegoak (EAE) pertsona eta elkarte ezberdinez osatutako sare garrantzitsu bat du, urtero faunaren aipamen ugari jasotzen duena lurralde guztian zehar. 2015. urtera arte, aipamen hauek irteera koadernoetan, behatzaile bakoitzaren datu base propioan (eskuraezina besteentzat) eta askotariko blog eta bestelako interneteko errekurtsuetan pilatuta amaitzen zuten. Beste askotan erregistratu gabe geratzen ziren. Datuak hain barreiatu egonik, informazioa ez zegoen eskuragarri. Honen ondorioz, ia ezin ziren datu hauek erabili, kontserbazio eta natur ondarearen kudeaketarako hain baliotsuak zirenak. www.ornitho.eus ataria, Aranzadi Zientzia Elkartearen inizatiba dena (www.aranzadi.eus), EAEn faunaren erregistroa, datuen difusioa eta kontsulta erraztuko duen herramienta moduan sortu da.

Bestalde, www.ornitho.eus ataria “ornitho”-ren barruan kokatzen da, Suitzan sortutako ideia, herrialde honetako hegaztien aipamenak biltzeko gunea bezala sortua. Gaur egun, “ornitho” Europako herrialde edo eskualde ugarian ezarri da (1. Irudia), hala nola, Frantziako zati handi batean, Suitzan, Italian, Alemanian, Austrian eta Polonian. Espainian martxan dago Katalunian eta, 2015 urtetik, Euskal Autonomia Erkidegoan.

Irudia 1. Hegaztien edo hegaztien eta bestelako animalia taldeen behaketak erregistratzeko “ornitho” ataria duten lurraldeak (2015 urtean).
Iturria: www.biologvision.net.



Denborak aurrera egin ahala, “ornitho” beste talde batzuetara zabaltzen da, atari bakoitzaren beharrei erantzunez. Alemania edo Suitzaren kasuan bezala ataria hegaztientzako bakarrik erabiltzen den bitartean, www.ornitho.eus atarian 10 talde ezberdin daude erabilgarri (informazio gehiagorako ikusi espezieen distribuzio taxonomikoa atala).

Bere sorreratik, www.ornitho.eus atariak izaera publikoa izan du. Horregatik, sistemako datuak erregistratutako edozein



erabiltzailek eskuratu ditzake. Testuinguru honetan, gainera, ataria Euskadiko Naturari buruzko Informazio Sistemari (ENIS) lotuta dago, Eusko Jaurlaritzak kudeatutakoa.

KIDEAK.

www.ornitho.eus ataria elkarlanean aurrera eramaten ari den proiektu bat da eta bertan partikularrek zein naturaren kontserbazioari loturiko erakunde ezberdinek parte hartzen dute. 2015. urtea bukatzerako, 13 erakundek kolaboratzen dute plataforman, Aranzadi Zientzia Elkartearen barne. Hauek dira:

Administrazio Publikoak:

- ✓ Eusko Jaurlaritzak.
- ✓ Arabako Foru Aldundia.
- ✓ Bizkaiko Foru Aldundia.
- ✓ Gipuzkoako Foru Aldundia.

Elkarteak:

- ✓ Aranzadi Zientzia Elkarteak.
- ✓ Arkamurka Natur Taldea.
- ✓ Itsas Enara Omitologi Elkarteak.
- ✓ Suspergintza Elkarteak.
- ✓ "Txepetxa" hegaztien zientzi-eraztunketarako elkarteak.
- ✓ Urdaibai Bird Center (Aranzadi Zientzia Elkartearen barruan).
- ✓ Zerynthia Elkarteak.

Fundazioak eta bestelako erakunde publiko eta erdi-publikoak:

- ✓ Cristina-Enea fundazioa (Donostia Udala eta Gipuzkoako Foru Aldundia).
- ✓ Ingurugiro Gaietarako Ikastegia (Vitoria-Gasteizko Udala).

Orokorrean, kideen kolaborazioa www.ornitho.eus plataforma promozionatzean, behatzaileen heziketan (espezieak identifikatzeko), datuak (behaketak) plataforman sartzean edo aipamenean egiaztatzean oinarritzen da, erakunde bakoitzaren alorraren arabera.



WWW.ORNITHO.EUS ATARIA EUROAPAN.



www.ornitho.eu atariak, "ornitho" atarien taldekoa izateaz gain, Euro Bird Portal-en (www.eurbirdportal.org) ere hartzen du parte, datuen aportazioarekin. Azken hamarkadan interneteko atari asko sortu dira europako hegaztien aipamenak biltzeko helburuarekin. Nahiz eta ia atari bakoitzak helburu desberdinak izan, denek espezieen banaketa

espaziala eta tenporalarari buruzko oinarritzko datuak partekatzen dituzte.

Euro Bird Portal datu guzti hauek atari bakar batean biltzeko helburuarekin sortu zen. Osagarri ideala da europako hegaztien banaketaren monitorizazioa eta hauen populazioaren tendentziak kalkulatzeko helburu duten beste proiektuentzat. Euro Bird Portal-ek honako helburu hauek aurkezten ditu: (1) denboraren eta espazioaren arabera banaketaren ereduak deskribatu eskala handi batean, (urtaroen arabera banaketan ematen diren aldaketak, migrazioak, fenologia...) eta (2) tokiko edo eskualdeko atari desberdinen bidez erregistratzen diren datuen balioa indartu.

Gaur egun, Euro Bird Portal-ek europako 21 herrialdeetan banaturiko 30 instituzio baino gehiagoren lankidetzat du. Bazkideak ornitologia arloan erreferente diren atariak edo biodibertsitateari buruzko datu-baseak zaintzen dituzten entitateak dira. Parte hartzen dute, besteak beste, "ornitho", "Trektellen", "Birdtrack", "VogelAtlas", "PortugalAves" bezelako atariak. Denera, 30 milioi hegazti-behaketa baino gehiago erregistratzen dira urtero Euro Bird Portal-en. Hortan laguntzen dute kontinenteko 100.000 behatzaile baino gehiagok. Europako zientzia herrikoiei eta biodibertsitateari buruzko proiekturik garrantzitsuena eta dinamikoena da.

BEHAKETEN EGIAZTAPENA.

Ornithok aurkezten duen abaintaila bat da Egiaztatze Batzorde baten existentzia, aditu talde batek osatzen duena, zeinak helburutzat duen zalantzazkoak diren behaketa guztiak berrikustea. Hau gertatzen da, gehienetan, identifikatzea zaila gertatzen den espezieetan, edo EAEn behatzea



ohikoa ez den denboraldi batean behatuak izan direnetan. Egiaztatze prozesuan, gehienetan erabiltzaileei informazio gehiago eman dezaten eskatzen zaie, identifikazioa errazteko eta aipamena ontzat hartzeko (gehienetan gertatzen den bezala).

Egiaztatze Batzordeko kideen lana altruista da eta beraz, erabateko esker ona merezi dute. Hauexek izan dira 2015 urtean Egiaztatze Batzordeko kideak (alfabetikoki ordenatuak):

- | | |
|--|---|
| ✓ J. Aihartza (saguzarrak). | ✓ I. Mezquita (tximeletak, odonatoak). |
| ✓ A. Aldalur (hegaztiak). | ✓ Y. Monasterio (tximeletak). |
| ✓ G. Belamendia (hegaztiak). | ✓ G. Ocio (hegaztiak, zetazeoak). |
| ✓ C. Cabido (anfibiok eta narrastiak). | ✓ J. M. Pérez de Ana (denak). |
| ✓ S. de Juan (hegaztiak). | ✓ I. Sarabia (hegaztiak). |
| ✓ R. Escobés (tximeletak). | ✓ X. Saralegi (hegaztiak). |
| ✓ M. Etxaniz (hegaztiak). | ✓ A. Unanue (hegaztiak). |
| ✓ J. Ferreres (hegaztiak). | ✓ I. Zuberogoitia (hegaztiak, ugaztunak). |
| ✓ J. A. Gainzarain (hegaztiak). | |
| ✓ I. Garin (anfibiok eta narrastiak). | |
| ✓ H. González (hegaztiak). | |
| ✓ J. González (ugaztunak). | |
| ✓ A. Gosá (anfibiok eta narrastiak). | |
| ✓ A. Herrero (hegaztiak). | |
| ✓ M. Iglesias (anfibiok, narrastiak). | |
| ✓ S. Lorenzo (tximeletak). | |
| ✓ A. Luengo (hegaztiak). | |
| ✓ E. Marcos (zetazeoak). | |

ERABILERA-ESTATISTIKAK.


2015. urtean zehar, www.ornitho.eus ataria 6.778 erabiltzaile ezberdinek (IP) kontsultatu zuten, 32.824 saio hasi zituzten eta 450.933 orrialde bisitatu. Honek saioko 13,74 orrialderen bisitaren batazbestekoa ematen du. Saioko batazbesteko iraupena 06:49 minutukoa izan zen.



% 20,7 saio berri lortu ziren, %79,3 izanik gainontzeko saioak, itzultako erabiltzaileek egindakoak (hau da, aurretik ataria kontsultatua zutenenak).

Perfil soziologiko batetik aztertuta, saioen %61 35 urte baino gazteagoek egindakoak izan ziren, gehienak 25 eta 34 urte artekoak izanik (2.irudia). 65 urtetik gorako erabiltzaileek % 5,5 saio hasi zituzten. Generoari dagokionez, %54,15 izan ziren gizonezkoak eta gainontzekoak, % 45,85, emakumezkoak.

2.irudia 2015ean www.ornitho.eus atarian burututako saio kopurua (ehunekoetan). Erabiltzaile bereziak (IP), adinaren arabera.



Jatorriari dagokionez, ataria 77 herrialdetan kontsultatu da. Saioen %88,08 (28.913) Espainian burutu ziren. Frantziak jaraitzen dio, %7,90 saiorekin (2.593), eta %1,22 (402 saiorekin), Suitzak. Gainontzeo herrialdeek irekitako saioak ez dira %1era iristen, eta guztira, %2,8-ko baliora iristen dira.


Hizkuntzei dagokionez, saioen %70 gaztelaniaz ireki ziren, %18 frantsesez, %6 euskeraz eta %6 ingelesez.



ERABILTZAILE KOPURUA.

2015eko martxoan atariari hasiera eman zitzaionetik, 2015eko abenduaren 31 bitartean 443 erabiltzaile erregistratu ziren. 2015eko martxotik emandako izen-emateen banaketa tenporala 3.irudian behatu daiteke. Izen-emateen maximo bat ikusi daiteke martxoan eta apirilean (bakarrik bi hilabete hauetan 256 erabiltzaile gehitzen baitira), inagurazioari eta atariaren lehen saio informatiboei lotuak. Bestalde, soilik 443 erabiltzailek, %30-ak hain zuzen ere, igo zituzten datuak atarira.

3.irudia. . www.ornitho.eus erabiltzaileen izen-emateak, 2015eko martxotik abenduaren 31 arte.




Erabiltzaileen jatorriari dagokionez, 209 (hau da, %47,2) EAE-tik kanpoko guneetatik datoz. Horietako ehuneko bat "ornitho" bezelako beste atarienak dira, batez ere Catalonia eta Akitaniakoak, baina baita EAETik gertu bizi diren pertsonenak ere. Hauek interesa eduki dezakete lurralde honetan eman diren aipamenetan (espezie arraroei buruz informatuta egoteko adibidez).

www.ornitho.eus ataria lau hizkuntzetan eskaintzen da: gaztelaniaz, euskeraz, frantsesez eta ingelesez. Aukeratutako hizkuntzari dagokionez, 272 erabiltzailek (hau da, %61,4) gaztelania hautatzen dute. Ondoren euskera eta frantsesa dira aukeratuena, 17,4% eta 17,2%, hurrenez hurren. Bukatzeko, 18 erabiltzailek soilik aukeratu dute ingelesa (4.irudia).




4.irudia. www.ornitho.eus-en izena emandako erabiltzaileak erregistratzeko aukeratutako hizkuntza, 2015eko abenduaren 31an eguneratua. Laburpena: ES, gaztelania; EU, euskera; FR, frantsesa; EN, ingelesa.



EKARPEN KOPURUA: ESTATISTIKA OROKORRAK.

5.irudia Erabiltzaileen banaketaren frekuentzia www.ornitho.eus-era ekarritako behaketen kantitatearen arabera (kopurua).



2015.urtea amaitzean, atariko behaketen erregistroa 88.924ra igotzen da, eta horietatik 63.818 (hau da, %71,8) 2015.urtean burutu ziren. 2015 aurretik gertatutako behaketak partikularren ekarpenei eta hainbat erakunderi esker sartutakoak izan ziren.



Erabiltzaile bakoitzeko ematen den behaketen erlazioari dagokienez, eredu asimetriko positibo bat antzematen da, hau da, erabiltzaile gehienek 100 behaketa baino gehiago burutu zituzten, eta, gutxiengoa dira behaketa asko erregistratu zituztenak (5.irudia). Eredu hau, dena den, ohikoa da www.ornitho.eus bezelako proiektuetan. 2015eko behaketen errekorra J. Esparciak lortu zuen, 14.057 behaketekin, ia horietako guztiak Plaiaundiko Parke Ekologikoan egindakoak. Oro har, 12 erabiltzaile egon ziren 1.000 behaketa baino gehiago partekatu zituztenak (1.tabla).

1.taula. 2015ean 1.000 behaketa baino gehiago egin zituzten lehen hamar erabiltzaileen behaketa kopurua. Taldeak: HEG, hegaztiak; UGL, ugaztunak (lurtarrak); UGI, ugaztunak (itsastarrak); SAG, saguzarrak; ANF, anfibioak; NAR, narrastiak; ODO, odonatoak; LEP, lepidoptera; HIM, himenoptera (liztor asiarra); MOL, moluskuak (zebra muskuilua). Bigarren eskuko datuak baztertu dira.

	HEG	UGL	UGI	SAG	ANF	NAR	ODO	LEP	HIM	MOL	Guzt.
J. Esparcia	13.981	17	2	0	15	31	2	5	4	0	14.057
S. Alarcón	8.170	37	0	0	4	46	6	505	49	0	8.817
Urdaibai B. C.	6.994	0	0	1	0	0	0	0	0	0	6.995
I. Novoa	3.279	182	0	0	96	14	31	95	23	4	3.724
I. Gutiérrez	3.466	5	1	0	1	0	20	9	0	0	3.502
I. Navas	2.723	10	0	0	0	1	0	0	0	0	2.734
Itsas Enara O.E.	2.255	0	0	0	0	0	0	0	0	0	2.255
E. Azkue	2.133	1	0	0	0	9	0	0	0	0	2.143
K. Aldama	1.399	7	0	0	0	1	0	4	1	0	1.412
A. Herrero	1.342	11	0	0	15	11	16	0	0	0	1.395

Bestalde, atariak dagoeneko argazki ugari biltzen ditu, batez ere hegaztienak. Honela, 251 hegazti espezierentzako badaude argazkiak jada, hau da, atarian erregistratutako espezieen %74. Oro har, 2015 urtean zehar, 1.390 aipamen eta 374 espezieren argazki gehitu ziren www.ornitho.eus atarira (2.taula). Bestalde, 20 espezie ezberdinen 20 soinua grabaketa erregistratu ziren (batez ere hegaztiak) (2.taula).



2.taula. 2015.urtea bukatzerako www.ornitho.eus plataforman erregistratutako espezie eta behaketa kopuru argazkiarekin edo soinuarekin (arg. eta soi., hurrenez hurren). 2015 baino lehenagoko behaketak gehitzen dira.

	Espezieak arg.	Behaketak arg.	Espezieak soi.	Behaketak soi.
Hegaztiak	251	1.102	18	18
Ugaztunak (lurtarrak)	15	35	1	1
Ugaztunak (itsastarrak)	2	2	0	0
Saguzarrak	0	0	0	0
Anfibioak	7	18	1	1
Narrastiak	17	37	0	0
Odonatuak	33	107	0	0
Lepidopteroak	47	78	0	0
Himenopteroak (liztor asiarra)	1	9	0	0
Moluskuak (zebra muskuilua)	1	2	0	0
GUZTIRA	374	1.390	20	20


EKARPENEN BANAKETA DENBORAREN ARABERA.

Apirilean, plataforma ireki eta hilabete batera, urte osoko ekarpenen maximoa eman zen, 7.774 behaketa erregistratuz (6.irudia). Urteko minimoa berriz, uztailean izan zen (5.137 behaketa). Abuztuaz geroztik, behaketa kopuruak hazkuntza progresibo bat izan zuen, soilik bi etenaldi izanik, irailean eta azaroan. Abenduko behaketa kopuruak maiatzekoaren parekoa izan zen (gutxi gorabehera 6.800 behaketa).


Astero, behaketek patroi argi bat izan zuten: (1) astelehenetik ostegunera behaketa kopuru finko bat, edo pixkanaka jaitsiz (150-160 behaketa eguneko), (2) hazkuntza batekin jarraituz ostiraletik igandera. Asteko maximoa igandean lortzen zen, 250 ekarpeneko batezbestekoarekin (7.irudia). Egun batez erregistraturiko behaketa kopuru maximoa 2015eko apirilaren 12an izan zen, talde guztien artean 497 behaketa lortuta (479 hegaztienak izanik).



6.irudia. 2015ean www.ornitho.eus plataforman erregistraturiko behaketa kopurua. Urtarrila eta otsaila beste kolore batekin irudikatu dira hilabete hauetan plataforma ez zegoelako erabilgarri publiko guztiarentzat. Martxoaren aurretik gehitutako aipamenak pertsona eta erakunde ezberdinek jasotako behaketa zaharrei dagozkie.



7.irudia. 2015.urtean astean zehar egindako behaketen batezbestekoa.



BEHAKETEN BANAKETA TAXONOMIAREN ARABERA.

Talde taxonomikoei dagokienez, hegaztien da behaketa gehienak biltzen dituen taldea (3.taula). 2015ean aipameneren %94,8 hegaztien behaketenak izan ziren. Jarraian lepidopteroak datoz, %3 inguruko portzentaiarekin. Gainontzeko taldeek %1-en azpiko balioak izan zituzten. Guztira, 561 espezie ezberdin erregistratu ziren (4.taula).



3.taula. Taxoi bakoitzeko 2015ean eta aurreko urteetan egindako behaketak www.ornitho.eus plataforman.


	2015 aurretik	2015
Hegaztiak	24.856	60.468
Lepidopteroak	20	1.745
Ugaztunak (lurtarrak)	117	531
Odonatuak	12	482
Anfibioak	44	244
Narrastiak	53	203
Himenopteroak (liztor asiarra)	1	122
Ugaztunak (itsastarrak)	1	13
Moluskuak (zebra muskuilua)	1	5
Saguzarrak	0	5
GUZTIRA	25.105	63.818

4.taula. 2015.urtean eta guztira erregistratutako espezie edo taxoi (generoa) kopurua. Kalkulu hauek egiteko, soilik generoa edo familia zehazten direneko kasuak (taxoiak) ezabatu dira (adib. *Anas* sp., edo *Anatidae*). Baita etxeko barietateak (adib. *Anas platyrhynchos f. domestica*) hibridoak eta subespezieak ere.

	2015	Guztira
Hegaztiak	315	342
Lepidopteroak	97	101
Ugaztunak (lurtarrak)	26	28
Odonatuak	41	42
Anfibioak	13	14
Narrastiak	20	22
Himenopteroak (liztor asiarra)	1	1
Ugaztunak (itsastarrak)	6	6
Moluskuak (zebra muskuilua)	1	1
Saguzarrak	4	4
GUZTIRA	524	561



8.irudia. 2015.urtean zehar talde bakoitzeko espezie ugarienek izandako behaketa kopurua. Gainera, bost espezie ugarienek osatzen duten behaketen ehunekoa erakusten da.






Orokorrean, zozo arrunta izan zen 2015ean behaketa gehien izan zituen espeziea. 8.irudian talde bakoitzeko espezie ugarienen harremana erakusten da. Ez da irudirik gehitu liztor asiarrarentzat eta zebra muskuiluarentzat. Era berean, ez da irudirik gehitu saguzarrentzat, 5 aipamen bakarrik baitaude 2015.urtean, 5 espezie ezberdinenak: *Myotis daubentonii*, *Nyctalus leisleri*, *Pipistrellus kuhlii*, *Pipistrellus pipistrellus* eta *Plecotus* spp. Taldeka, hegaztien kasuan azpimarratzekoa da espezie ugarienek ez dutela %12ko balioa gainditzen 2015ean (8.irudia). Lepidoptero eta odonatueta ere antzekoa gertatu zen, bost espezie hauek ez zituzten ehuneko altuak (%28 eta %35, hurrenez hurren). Ugaztunen, narrastien eta anfibioen kasuan berriz, gehien behatutako espezieek %70 baino gehiagoko balioak bildu zituzten (%92 zetazeoen kasuan). (8.irudia).

BEHAKETEN BANAKETA GEOGRAFIKOA.

9.irudia. 2015ean www.ornitho.eus plataforman erregistratutako hegaztien behaketen banaketa geografikoa.





Orokorrean, eta hegaztiei erreparatuz gero aipamen gehien dituen taldea izanagatik, 2015ean zehar erregistratutako behaketen banaketak EAEko parte handi bat hartzen du. Honek, orokorrean, behatzaileen estaldura adierazgarri bat bermatzen du. Hala ere, zehaztasunez aztertzen badugu, oraindik estaldura baxua edo eza agertzen duten eremu batzuk ikusi daitezke. Honen adibide argiak dira Gipuzkoako mendebaldea (Deba eta Urola bailaren erdiko eta behe ibilguak), Arabako mendebaldeko, hegoaldeko eta ekialdeko eremu zehatzak (9.irudia). Bestalde, behaketa dentsitate maximoa duten eremuak, nagusiki, hurrengoak dira: (1) Gipuzkoako kostaldeko erdi-ekialdeko sektorea, (2) Gipuzkoako hego-mendebaldea, (3) Urdaibai, (4) Bilbo handia, (5) Vitoria-Gasteizko hiria eta (6) Arabako eremu heze handiak.

5.taula. 2015ean EAE-ko probintzia bakoitzean egin ziren behaketa kopurua. Trebiñuko Konderriko behaketak Araba bezala zenbatu dira.

	Gipuzkoa	Bizkaia	Araba
Hegaztiak	33.491	17.585	9.392
Lepidopteroak	135	531	1.079
Ugaztunak (lurtarrak)	277	130	124
Odonatoak	376	63	43
Anfibioak	169	34	41
Narrastiak	84	77	42
Himenopteroak (liztor asiarra)	43	74	5
Ugaztunak (itsastarrak)	7	6	0
Moluskuak (zebra muskuilua)	0	0	5
Saguzarrak	3	1	1
GUZTIRA	34.585	18.501	10.732

Probintziak, Gipuzkoa izan zen %54,2rekin 2015ean behaketa gehien izan zituen eskualdea (5.taula). Taldea, dena den, Arabak Gipuzkoak baino gehiago izan zituen lepidopteroen kasuan (%61,8) eta Bizkaiak liztor asiarraren kasuan (%60,6) (5.taula).


Oro har, 227 dira behaketa bat duten EAE-ko udalerrak (223 2015ean). Guzti horien artean, aipatzekoa da Irunen kasua, bakarrik 2015ean 19.723 behaketa erregistratu zituelarik, batez ere Plaiaundiko Parke Ekologikoak egindako datuen ekarpenei esker. Honek Gipuzkoa osoan urte horretan erregistratu ziren aipamenen %57,0 suposatzen du eta EAE-ko %30,9.



HEGAZTI HABIA-EGILEEN ATLASA.

Hegaztietan, www.ornitho.eus plataformak kode bat sartzea ahalbidetzen du, “atlas kodea” deitua, habia egiteko garaian, habia egitea posiblea, probablea ala ziurra den determinatzeko. Era honetan EAeko hegazti habia-egileen mapa bat eraikitzea ahalbidetzen da (10.irudia). 2015.urtean zehar habia egiteari buruzko datuak 10x10km²-ko 89 UTM kuadrikulatan bildu ziren, guztira 89 espezie habia-egile aipatuz. Espezie gehien izan zituen kuadrikula Gipuzkoako ipar-ekialdeko sektorekoa izan zen (79 espezie), zeinak Txingudiko padurak barne hartzen dituen. Kuadrikula honetan habiagintza posiblea behatu zen 28 espezietan, probablea 8 espezietan eta ziurra 43 espezietan. Era berean, Arabako hego-mendebalderako datu eza agerian jartzen da.

10.irudia. 2015ean, EAEn, 10x10 km²-ko UTM kuadrikulatan topatutako espezie habiagile kopurua laburbiltzen duen mapa. Kuadrikula bakoitzean habiagintza posiblea, probablea eta ziurra duten espezieak barne hartzen dira.





HEDAPENA.

Hedapenerako lehenengo ekitaldia inaugurazioaren egun berdinean izan zen, 2015eko martxoaren 17an, Eusko Jaurlaritzako Lakuako eraikinean (Vitoria-Gasteiz). Ekitaldiko burua A. Oregi izan zen, Ingurumen eta Lurralde Politika Saileko Sailburua. Horrez gain, beste erakunde batzuetako ordezkariak ere han izan ziren, GBIF-España, Institut Català d'Ornitologia (www.ornitho.cat plataforma), Gasteizeko Udalaren Ingurumen Gaietarako Ikastegia eta Birding Euskadi-ko ordezkariak, besteak beste. Orotara, 50 pertsona inguru joan ziren.



11.irudia. www.ornitho.eus plataformaren inaugurazio ekitaldia. Ezkerretik eskumara: J. Arizaga (plataformaren koordinatzailea, Aranzadi Z. E.), A. Barredo (Natur Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaria, Ingurumen eta Lurralde Politika, Eusko Jaurlaritza), J. Agirre (Aranzadi Z. E.-ko Idazkari Nagusia), M. Ituribarria (SINE-ko koordinatzailea, Eusko Jaurlaritza), G. Gargallo (www.ornitho.cat).

www.ornitho.eus atariaren irekiera urtea 2015 izanik, kudeaketa taldearen eginkizun nagusietako bat plataformaren hedapena izan da, jardunaldi informatiboen bidez batez ere, ordu bateko iraupenekoak, EAE-ko leku ezberdinetan. 2015ean zehar emandako jardunaldien erlazioa ondoren adierazten da:

- ✓ 2015/mar/31. Arkamurka elkartearen egoitza, Zarautz (Gipuzkoa).
- ✓ 2015/api/13. Bilbao (Bizkaia). Izate elkarteko kideekin batera antolatutako saioa.
- ✓ 2015/api/14. Aranzadi Zientzia Elkartearen egoitza, Donostia (Gipuzkoa).
- ✓ 2015/mai/05. Ataria interpretazio zentroa, Gasteizen (Araba). Gasteizko Udalaren Ingurumen Gaietarako Ikastegiarekin batera antolatutako saioa.
- ✓ 2015/mai/06. Fraisoro Zentroa (Gipuzkoako Aldundia), Zizurkil (Gipuzkoa). Gipuzkoako Aldundiko teknikoei zuzenduta antolatutako saioa.
- ✓ 2015/mai/07. Urdaibai Bird Center, Gauegiz-Arteaga (Bizkaia).
- ✓ 2015/mai/16. Plaiandiko Parke Ekologikoa, Irun (Gipuzkoa).



- ✓ 2015/mai/22. Katekesis Aretoa, Amurrio (Araba). Amurrioko Udalak antolatutako Biodibertsitate Jardunaldien barruan kokatutako saioa.
- ✓ 2015/mai/28. Cristina-Enea parkea, Donostia (Gipuzkoa). Cristina-Enea Fundazioarekin batera antolatutako saioa.
- ✓ 2015/eka/10. Kanpinaren Euskal Klubaren egoitza, Donostia (Gipuzkoa).

Jardunaldi guzti hauetaz gain, publikoak, EAE-ko erakunde ezberdinekin bilerak egin ziren, elkarlanerako sare sendo bat ezartzeko asmoarekin, plataforma zenbat eta pertsona gehiagok erabili, orduan eta balio handiagoa edukiko duelako ideiarekin.

www.ornitho.eus ataria Ingurumen eta Lurralde Politika Sailak (Eusko Jaurlaritza) antolatutako Naturaren II. Jardunaldietan ere bertan egon zen, Gasteizen, 2015eko azaroaren 18 eta 19an.

Plataforma ezagutarazteko helburuarekin, urriko lehenengo astebururako (Hegaztien Astearekin bat etorriz) Euskadiko I. Maratoi Ornitologikoa antolatu zen. SEO/BirdLife (Euskadiko ordezkari-tza), Ataria zentroa (IIZ, Gasteizko Udala, Urdaibai Bird Center, Euskadiko Biodibertsitate Zentrua eta Plaiaundiko Parke Ekologikoarekin elkarlanean, ekitaldia 24 ordutan zehar burutu zen, 2015eko urriaren 3an larunbata.

ESKER ONAK

www.ornitho.eus plataforma proiektu kolektibo bat da eta, ondorioz, atari honen arrakasta haien aipamenekin laguntzen duten guztien meritua da. Eskerrik asko guzti horiei, haien lanarekin EAeko faunari buruzko ezagutza hobetzen laguntzeagatik. Eskertu egin behar da, era berean, Eusko Jaurlaritzaren babesa, eta bereziki bere Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailarena, plataformaren finantziazioan laguntzeagatik.